



**EUSKARAREN
DISKURTSOAK
NAFARROAN**

**ZEIN ARRAZOI
ETA IDEIA DITUGU
EUSKALDUNOK
AURRERA EGITEKO?**



Diskurtsoen labirintoan salbazio bila

Nafarroan, aldaketaren indarrak Foru Gobernura iritsi zirenetik, euskara guda-
zelai bihurtu du oposizioak; eta une zehatzetan burrunba handia sortu du nafar
gizartean. Zein diskurtsorekin erantzuten dute halakoetan euskaldunek eta
euskaltzaleek? Zein ideiatan oinarritzen dute euskararen normalizazio prozesua?
Joxerra Olano eta Koldo Martinez jarri ditugu aurrez aurre ideia hauen hausnarrean.
Euskararen esparruko pertsona esanguratsuen iritziak ere bildu ditugu.

**Ba al dugu euskararen diskurtsorik Nafarroan?
Zuen ustez zeintzuk dira bere ezaugarri nagusiak?**

KOLDO MARTINEZ. Guk hiru diskurtso ikusten ditugu Nafarroan euskararen inguruan: bi aldekoak dira eta bat ez. Euskararen aldeko bietan, elebitasuna ulertzeko era da haien arteko ezberdintasun nagusia, batzuentzat elebitasuna tranpa baita eta euskara Nafarroako bertako hizkuntza bakar gisa ikusten da. Geroa Baikoentzat, gaztelania eta euskara biak dira Nafarroako bertako hizkuntzak eta biak defenditu behar ditugu, noski, kontuan hartuta euskara gaztelania baino askoz ahulagoa dela. Euskaldunen eta erdaldu-

nen eskubideak babestu behar ditugu, bi multzoen eskubideak kontrajarri gabe. Beste diskurtsok kontrajarri egiten ditu eta hori oso arriskutsua da.

Hirugarren diskurtsoa oso hedatua dago, batik bat alderdi politiko batzuek oso barneratua dute, eta euskararen edozein aurrerapauso inposiziotzat hartzen du. Oso argiak izan behar dugu hauen aurrean eta diskurtso honi aurre egiteko dugun bide bakarra ahalik eta demokratikoen aritzea da. Adierazi behar zaie biek dituztela eskubideak, oreka bat behar dela eta oreka horretan euskara lagundu behar dela.

■ **Egilea: Xabier Letona**

Azala: Joseba Larratxe · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.eus **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAREN 2.566 zenbakiarekin banatua, 2017ko irailaren 24an)



Koldo Martinez, ezkerrean, eta Joxerra Olano Iruñeko Alde Zaharreko kaleetan. JOSEBA ZABALZA

JOXERRA OLANO. Hiru diskurtso horiek hor daude, zalantzarik gabe. Koldok gehiago hitz egiten du politikatik, nik gehiago hitz egingo dut euskararen aldeko mugimendutik, eta mugimendu horretan ere ez dago diskurtso bakarra, diskurtsoak baizik. IKAn argi bereizten ditugu norbanako elebiduna eta gizarte elebidunaren kontzeptuak. Guk garbi egiten dugu norbanako elebidunaren alde; bi, hiru edo lau hizkuntza jakitea aberasgarria da, baina nik behintzat gizarte elebidun gutxi ezagutzen dut. Euskararen aldeko mugimenduan 90eko hamarkadan honako esaldi hau erabili genuen: “Hobe jakitea, ez jakitea baino”.

Berezko hizkuntza dela eta, euskararen aldeko mugimenduan ere hainbat iritzi dira horretaz. Nire ustez, berezko hizkuntza lurralde bati lotutako giza komunitate batek berez duen hizkuntza bada, beste inondik ekarria ez dena, euskaldunen berezko hizkuntza euskara da. Beste kontu bat da gaztelania ere Nafarroako hizkuntza izatea, bertan mintzatzen delako.

Eskubideen gaia. Goazen 2015eko Hezkuntza Publikoko irakasle lanpostuen deialdira: euskaraz aritzeko atera ziren lanpostuak batez ere eta aurkako arabera, lan deialdia desorekatua zen eta kolokan jartzen zen euskaraz ez dakiten herrita-

rrek funtzionario izateko duten eskubidea. Noiztik da hori eskubidea? Hori eskubide asmatu berria da. Administrazioa zerbitzu egokia emateko dago; horretarako langileak gaitasun batzuk behar izaten ditu eta gaitasun horien artean dago hizkuntza ere. Administrazioak medikuak behar dituzenean eta dagokion lan eskaintza egiten duenean, inork ez du esaten medikuntza ikasketak eskatzeagatik ikasketa horiek ez dituen baztertzeko ari denik.

Inposizioa... Tira, gogora datorkit Espainiako Erregeak 2001eko Cervantes saria ematean esan zuena [paperetik irakurri du]: “Nunca fue la nuestra lengua de imposición, a nadie se le obli-

gó a hablar castellano, fueron los pueblos más diversos quienes hicieron suyo por voluntad libérrima el idioma de Cervantes”. Jakina, gaztelaniak berezko dituen dohain zoragarri horiei esker zabaldu da munduan.

Inposizioaren diskurtsoa defendaezina da. Ez dago hizkuntza hoberik eta eskasagorik; behar komunikatiboak asetzeko tresnak dira hizkuntzak eta guztiek asetzen dituzte premia horiek.

K. MARTINEZ. Agian badira hizkuntza batzuk helburu batzuk lortzeko trebeagoak direnak, adibidez ingelesa. Hainbat gauzetarako ingelesa da munduan dagoen hizkuntzarik trebeena, kon-

A u r r e z a u r r e

■ KOLDO MARTINEZ

Geroa Baiko foru parlamentaria



JOSEBA ZABALZA

Eskoriatzan (Gipuzkoa) jaioa 1953an. Iruñean bizi da. Nafarroako Legebiltzarkidea da eta Geroa Bai talde parlamentarioko bozeramailea. Dagoeneko desagertua den Euskara Kultur Elkargoko lehendakaria izan zen. Urteetan Zainketa Intentsiboen Unitateko medikua izan da Nafarroako Ospitalean eta han du bere leku profesionala.

■ JOXERRA OLANO

IKA euskaltegiko irakaslea



JOSEBA ZABALZA

Azkoitian (Gipuzkoa) jaioa 1962an. Iruñean bizi da eta euskara irakaslea da IKAko (Ikas eta Ari) Barañaingo Sahats Euskaltegian. Aurten 26. urtea egingo du Barañainen. Aurretik sei ikasturte egin zituen irakasle Arabako Errioxan. 1989an IKA sortu aurretik, AEK-ko irakasle izan zen.

tzeptu berriak sortzeko adibidez, eta gainera mundu guztiak onartzen ditu, gaztelaniaz, euskaraz, frantsesez... Zergatik gertatzen da hori? Ingeles hiztunak trebeagoak direlako agian... luze eztabaida daiteke hortaz.

J. OLANO. Hizkuntza baten arrakasta hizkuntza horretan mintzo direnen botereari guztiz lotua dago.

K. MARTINEZ. Bai, hala da. Horregatik, euskara bakarrik ez, botere kontuak ere aintzat hartu behar dira euskarari laguntza eman ahal izateko.

Diskurtso horiek egokiak al dira euskaraz normaltasunez bizitzera iristeko?

J. OLANO. Kontuan hartu behar da mezuaren hartzailea nor den. Nekeza egiten zait diskurtso bera erabiltzea administrazioari begira, euskaldunei, erdaldunei begira... Diskurtso bat baino gehiago erabiltzen dugu. Azken boladan modan dago diskurtsoaren gaia, eta uste dut esperantza gehiegi jartzen dela diskurtsoaren egokitasunean, hau da, diskurtsoan asmatuz gero sekulako aldaketak gerta daitezkeen ustea irenstea gaitz samarra egiten zait. Horrez gain, oso garrantzitsua da bakoitzak bere diskurtsoa zabaltzeko zer baliabide dituen kontuan izatea.

K. MARTINEZ. Guretzat lehen diskurtso hori –elebitasuna tranpatzat hartzen duena– oso kezagarria da. Horrek gizartea bi muturretara eramaten du eta gauzak muturrera eramaten direnean, batzuek ala besteek irabazten dute, baina ez erdikoek, ez gehiengoak. Oso diskurtso zentratuta jo behar dugu, horregatik azpimarratzen ditugu bai euskararen balioa eta baita gaztelaniarena ere.

Joxerra, jakitea hobe da ez jakitea baino. Ados, baina hori diskurtso utilitarista da eta ez digu mesederik egiten. Horretan oinarrituta, askoz hobeagoa da ingelesa, txinera, fran-

tsesa edo arabiera jakitea, euskara jakitea baino. Aniztasunaren aldeko balio demokratikoa azpimarratu behar dugu, hizkuntzen gaian zentraltasuna lortzeko, batzuen eta besteentz eskubideak bultzatuz, sakonduz eta errealitate bihurtuz.

J. OLANO. Lehen aipatu duzu gehiago interesatzen zaizula euskaldunen diskurtsoa zein den aztertzea, aurkakoena baino, baina diskurtsoak ez dira konpartimentu estankoetan egoten eta ideiak batetik bestera pasatzen dira. Adibidez, ekainean Batzarreko 16 militante ezagunek iritzi artikulua bat argitaratu zuten eta deigarri egin zitzaidan irakurtzea – eskubide kontrajarriak egon zitezkeen neurrian– haien jarrera tinkoari esker gobernuak ez duela gehiegizko neurririk hartu euskararen alorrean, herritarren eskubideekin talka egin zezaketen gehiegizko neurririk, hain zuzen ere. Ez zuten zehazten eskubide kontrajarri horiek zein diren eta ezta gehiegizko neurri horiek ere, baina euskararen aldeko neurriak arrakastatsua izango direla zioten, borondatezkotasun printzipioa eta Nafarroaren errealitate soziolinguistikoa aintzat hartuz gero. 80ko hamarkadako euskararen aurkako argudioen berpiztea iruditu zitzaidan.

Jo dezagun desiragarriena den egoerara, hau da, Nafarroa Garaia herriar guztiak euskaraz jakitea. IKAk argi dio hori dela onuragarriena. Hori onuragarria litzatekeela ikusten badugu, gehiegizko neurriak zein liriateke? Inposizioa dela eta: inork ez du esaten “Karibe aldean 15 eguneko egonaldia inposatu didate”. Gauza txarrak inposatzen dira, kaltegarriak izan daitezkeenak, ez onak, ez desiragarriak.

Zergak ordaintzeko garaian lehen mailako herritarra naiz eta zerbitzua jasotzean ere hala izan beharko nuke. Ere euskaldunean bizi banaiz bigarren mailako herritarra naiz, euskarak duen lege babesa ez delako gaztelaniaren adinakoa eta eguneroko zerbitzuak ez ditudalako euskaraz jasoko; eremu mistoan bizi banaiz hirugarren

mailakoa naiz eta eremu ez euskaldunean laugarren mailakoa. Inork ez du defendatzen elbarriak, demagun, %0,06 direla eta, zerbitzuak ere halako proportzioan emango zaizkienik.

K. MARTINEZ. Elbarriek lortu dute gehiengo demokratikoak onartzea haiek eskatzen dutena. Hori da euskararekin Nafarroan lortu ez duguna, hainbat arrazoiengatik seguruenik. Bat izan daiteke nafar euskaldunen gehiengoak izandako diskurtsoa bera, mutur batekoa izan delako. Gogoan dut Euskara Kultur Elkargoan nenbilenean “Euskaraz bizi nahi dut” leloa jarri zela abian, eta Elkargoan zera esaten genuen “Euskaraz ere bizi nahi dut”, baina ez ziguten onartu eta hasiera batean nahiko jarrera hotza mantendu genuen kanpainarekiko.

Jarraitzen dut pentsatzen kaltegarria dela orain ere eta “Euskaraz ere bizi nahi dut” izan beharko lukeela. Gainera diskurtsoak egituratzerakoan errealitate soziolinguistikoa aintzat hartu beharrekoa da, euskaldunok %15 eta elebidun hartzaileak %10 garenean ezinezko baita pentsatzea zerbitzu publikoen %100 euskaraz egotea, euskaraz ez dakien %75a kontra egotera bultzatuko genukeelako.

Baina “ere” hori gure egunerokoan badago, euskaldunok euskaraz eta gaztelaniaz bizi ohi gara...

K. MARTINEZ. Ba ez, eta diskurtso hori lotzen dut elebitasuna tranpa gisa ikusten duen euskaldunen sektore horrekin, eta hori oso arriskutsua da euskararekiko. Lan eskaintza publikoa aipatu duzu, Joxerra. Hain gaizki komunikatu zen zergatik atera ziren hainbeste plaza euskaraz eta hain gutxi erdaraz! Hala ere, orduan ere argi utzi nuen, eskubidea ez da funtzionario izateko eskubidea, une hartan haur haiek euskaraz ere hazteko eskubidea baizik.

Administrazioan euskararen balorazioa sartzeko Nafarroako Gobernuak aurre-dekretua atera zuenean, EH Bilduk lehen bileran esan zuen murrizta zela eta Izquierda-Ezkerrak gehiegizkoa

zela. Orduan, nola erabakitzen da? Zer jartzen dugu mahaiaren gainean? Euskararen egiazko balioa edo euskara ez dakitenena eta administrazioan lanpostu bat lortu nahi dutenena?

Hori guztia kontuan hartuz Euskararen Legeak Nafarroa hiru zatitan banatzen duela. Legea aurtent aldatu dugu, baina funtsean ez da aldatu. Zergatik? Ez dugulako horretarako gehiengorik. Hori da gure porrotaren adierazle garrantzitsua. Errazena da erantzukizuna gobernuari botatzea, baina erantzukizuna gizarteak du, guk geuk, gehiengo hori lortu ez dugulako. Epe laburrean, helburua nafar guztiak euskara minimo bat jakitea litzateke; epe luzeagoan nafar guztiak euskaraz normaltasunez mintzatzea. Politika da esatea, baina hori lortzeko bitartekoak aipatu beharko genituzke eta hori une honetan oso zaila da. Nik balore demokratikoen bidea baino ez dut ikusten hori lortzeko.

J. OLANO. Kontua da, gaur egun oraindik badirela hainbat indar politiko ez datozenak bat helburu horrekin. Adostasuna bai, baina norekin? Euskara desagertuko balitz, poztu egingo liratekeela iruditzen zaidanekin? Adostasunaren atzean sarri eskakizunen langa jaitea besterik ez dago. Ez diot gobernu horretan dabilenik, baina horren arriskua badago.

Ofizialtasuna dela eta, ez nuen espero gobernuaren aldeko indarrak historikoki euskara Nafarroan ofiziala izatearen aldekoak izanik, ofizialtasuna akordio programatikotik kanpo uztea. Urrutitik bizi izan nituen negoziazio haiek, baina ondoren zera galdetu izan diot nire buruari: “EH Bildu eta Geroa Baik hori ezinbesteko baldintza gisa jarri izan balute, Izquierda-Ezkerria ausartuko zen UPN gobernuan uztera euskara Nafarroa osoan ofiziala izatearekin bat ez zetorrelako?”. Eta nire erantzuna da ezetz, ez zela ausartuko.

Badugu zer kritikatu gure buruari. Hala ere, nahiz eta diskurtsorik egokiena egin, aurkakoek

jarrera aldatuko lukete? Ez dut uste. Uste dut aitzakiak direla, oraintsu arte terrorismoa izan da, eta lehenago Unamunoren garaian kabernikola izatearekin lotzen zen euskaraz egitea. Hezkuntzako lan eskaintza publikoaren adibidean, Koldo, erantzuna antzekoa izango zen era batera edo bestera komunikatu.

K. MARTINEZ. Azken finean, helburu politikoaren artean euskara bat da, nahiz eta batzuentzat hil ala bizikoa den, bai mutur batean zein bestean.

J. OLANO. Ni euskararen aldeko mugimendukoa naizen neurrian, niretzat euskara da helburu politikoa bakarra. IKAn izan dugu sektore guztietara iristeko gaitasuna, instituzioentzat diskurtso bat erabiliz eta beste bat jendea erakartzeko garaian. Hori gauza bat da eta beste bat hizkuntza batzuk besteak baino hobek direla eta gisa-koak irenstea, eta pentsamendu horri tira egingo bagenio, arrazakeriara iritsiko ginateke.

Hezkuntzako lan eskaintzan edo Iruñeko euskarazko haur eskoletako aferan protesta handiak egon ziren gizarteko hainbat sektoretan. Euskaldunok zer transmititu behar diegu sektore horiei?

J. OLANO. Aspaldiko eskaria zen eta udalak egin behar zuena egin zuen. Erantzuna nahiko iraingarria izan zen: orain familia batzuk 200-300 metro mugitu behar zuten, eta beste batzuek orain arte seme-alabak euskarazko haur eskoletara eramateko aukerarik ere ez dugu izan, edo, onenera jota, etxetik kilometro pare batera zegoen haur eskolara eramane behar izan ditugu. Erabilitako argudioak egokiak izan ziren, baina guk megafonia txikia dugu eta haiek oso handia.

K. MARTINEZ. Bi esparru horietan aldaketa handiak behar ziren, eta bai Hezkuntza Saila eta bai Udala ez ziren gai izan behar hori sozializatzeke. Aldekoekin ez zegoen arazorik, baina bai euren burua kaltetutzat hartuko zutenekin. Horiekin gutxieneko adostasun batera iristeko ahalegina ere behar zen. Hori da Nafarroan



Koldo Martinez

Euskaraz ikasi nahi ez dutenek ere euren eskubideak dituzte eta gaur egungo erronkarik handiena da batzuen eta besteen eskubideak orekatzea”

oraindik falta zaiguna: euskararekin bat ez dato- rren jendea kontzientziatzea euskararen garrantzi- az. Eta egin ez zirenez bi kontu horiek –sozia- lizazioarena eta adostasun ahaleginarena–, ba euskara berriz ere gatazka motibo bihurtu genuen, gure borondate onenarekin izan bazen ere.

J. OLANO. Urratsik txikiena emanda ere, zen- baitentzat ez ote da euskara beti gatazka iturri izango? Horientzat urratsik txikiena ere beti da asko. Oraindik gogoan dut euskara ofiziala izate- ko 48.000 sinadura aurkeztu genuenean Miguel Sanzek esan zuena: “Guk 100.000 boto ditugu”.

Beharrak, kohertzioak... zein leku dute euskararen diskurtsoan Nafarroan?

K. MARTINEZ. Guk argi dugu gizartearen zati batek bere haurrak euskaraz hazi nahi dituela eta hori eskubide bat da. Hor ez dago zalantzarik.



Joxerra Olano

Garbi dut hemengo benetako agintarien euskararen inguruko jarrera kontsiderazio politikoetan oinarritua dagoela, eta horregatik dut fede gutxi diskurtsoetan”

Horrez gain, argi dugu euskara bultzatu behar dela euskara gure hizkuntza “ere” badelako, eta gainera aniztasunaren aberastasunean sinesten dugulako. Baina gaur egun euskaraz ikasi nahi ez dutenek ere euren eskubideak dituzte eta gaur egungo erronkarik handiena da batzuen eta besteentz eskubideak orekatzea. Alde batera ematen duzun pauso minimo hori inposizio gisa ikusten da eta hori da legealdi honetan eta ondorengoan lortu behar duguna: Nafar guztiek onartzea euskara guztion balorea dela eta defendatu egin behar dela.

J. OLANO. Hemen “hizkuntzaren politizatzear” hitz egiten dute, baina norbaitek politizatu badu hizkuntza hori euskararen aurkakoak izan dira. Euskara haien proiektu politikoa aurrera ateratzeko trabatzen jo zuten Trantsizioaren amaieran, eta horren arabera jokatu dute, jendearen jarrera aldatzeko. Nola? Diskurtso jakin bat erabilia, eta egin duten hizkuntza politika egin da.

Lehen haize kontra ari ginen lanean euskararen aldekoak eta orain haize alde, baina oso haize leuna sentitzen dugu... Askoz haize indartsuagoa beharko genuke, eta horrela herritarrak ere sumatuko luke euskara beharrezkoagoa dela.

Euskararen inposizioa ere entzun behar izaten dugu... Hemen azken 500 urteetan inposatu den hizkuntza bakarra gaztelania da. San Inazioaren bizitzari buruzko euskarazko liburua argitaratzea debekatu zuten XVIII. mendearen amaieran; euskarazko libururik ez zegoen argitaratzerik hemen... eta hori baino lehenagoko eta ondorengo beste hamaika adibide ere badira.

Horrez gain, historia ere kontuan hartu behar da hizkuntza baten ordezkatzeko prozesuan. Edo Espainiako Juan Carlos erregeak zioen bezala, gaztelaniaren zabalkundea egin zen “fundamentada en la libérrima voluntad de los más diversos pueblos...”, hau da, gaztelaniaren dohainez txoraturik baztertu genuela gure hizkuntza?



Koldo Martinez

Hori da Nafarroan oraindik falta zaiguna: euskararekin bat ez datorren jendea kontzientziaztea euskararen garrantziaz”

K. MARTINEZ. Utzidazu bi pasadizo kontatzen. Bata Iruñeko kategoria handiko eskola pribatu batean gertatu zen eta irakasleak galdetu zien bere ikasle erdaldunei: “Y por qué creéis que han puesto en las entradas de la ciudad carteles de Pamplona-Iruñea?”. Lehen erantzuna izan zen: “Porque vienen muchos vascos de veraneo a Pamplona”. Hori garai batean ez zen gertatzen eta oso kontuan hartzekoa da. Hor ikaragarritzko atzerapausoa eman dugu Nafarroan, oso gaizki egin dugu eta ez dugu asmatu. Edo gu oso tentelak izan gara eta ez dugu asmatu komunikazioan, edo bestela besteak oso argiak izan dira eta izugarritzko boterea izan dute...

J. OLANO. Baina herritarren pertzepzioa aldatu daiteke. Asmatuko genuke geuk ere haiek izan dituzten tresna guztiak eskura izanda! Eta, hala ere, azken 30 urteetan hiztunak irabazi ditugu eta erabilerak ere gora egin du; azken azterketen arabera, puntu bat. Beraz, zerbaitetan asmatuko genuen. Besteak beste euskaldunei begirako diskurtsoan asmatu dugu eta Nafarroako euskaldunen artean euskararen aldeko kontzientzia handia dago, zorionez.

Gobernua bere ohiko jardunean euskara erabiltzearekin euskarari prestigioa ematen ari zaio dagoeneko, baina beldur naiz zuk aipatu duzun bigarren legealdirik ez ote den egongo. Ez dakit orduan ez ote dugun hitz egingo aukera galduen agintaldiaz. Ea ez den horrela.



Joxerra Olano

Urratsik txikiena emanda ere, zenbaitentzat ez ote da euskara beti gatazka iturri izango? Horientzat urratsik txikiena ere beti da asko”

Jon Alonsok euskararen inguruko kontsentsu politiko berri baten beharraz idatzi du ARGIAren “Aktualitatearen gakoak” argitalpenean, arrazoi demokratikoan eta euskaraz bizitzeko eskubidean oinarrituta.

J. OLANO. Zoritxarrez, Nafarroan kontsentsu politiko berri bati buruz hitz egitea zientzia fikzioa iruditzen zait. Garbi dut hemengo benetako agintarien euskararen inguruko jarrera kontsiderazio politikoetan oinarritua dagoela, eta horregatik dut fede gutxi diskurtsoetan. Jakina, saiatu behar da sektore bakoitzari diskurtso egokia helarazten. Oro har, euskararen aldeko babes politiko gutxiarekin aritzea tokatu zaigu gehiengotan, eta uste dut erabat oker ez garela aritu. Dibulgazio lan bat egin behar da, zeresanik ez, bereziki ia hutsetik abiatzen garen tokietan, Erriberako zenbait herritan, adibidez. Egoki jokatzen badugu eta neurri politikoak hartzen baditugu, euskara gero eta beharrezkoagoa dela ikusiko dute herritarrek eta gora egingo du, zalantzarik gabe.

“Euskaraz bizi nahi dut” Kontseiluan sortu genuen eta horren jatorrian dago –ikusita Nafarroako Gobernuaren jarrera zein zen– eskubideen diskurtsoa agortuta ikusten genuela. Nik argi dut, “ere” hori beste batzuek jarriko diote. Zoritxarrez, egunerokoan gaztelaniaz egitera behartzen nau hemengo egoera soziolinguistikoa. Bizitzaren alor guztietan ez dut euskaraz bizitzerik oraindik ere, eta eslogan horrek hori aldarrikatzen du: gure lurrian, bizitzaren alor

guztietan gure hizkuntzan bizi ahal izatea. Hori gutxieneko demokratiko bat da, eta ez dute onartzen.

K. MARTINEZ. Nire aitona Fiterokoa zen eta Elgetara emigratu zuen, ez zen euskalduna. Fiterora noanean, hango hizkuntza gaztelania da. Euskara totem bat bihur dezakegu eta nik uste dut egunerokoan hainbat arlotan bizitzeko tresna bat dela. Beste arlo batzuetan ingelesa da hizkuntza aproposagoa. Euskarak presa du, baina presarik gabe jokatu behar dugu, hori da dugun kontraesan sakonenetakoa. Eta une honetan, Legebiltzarrean, 50etik 26 boto ditugu, gure akordio xumeak aurrera eramateko.

J. OLANO. Euskara Nafarroa osoan ofizial egiteko gai ez den adostasuna...

K. MARTINEZ. Ofizialtasuna totem bat ere bada. Horrek zer esan nahi du?

J. OLANO. Hizkuntza guztiek behar duten legezko babesa izatea...

K. MARTINEZ. Eta horrek zer esan nahi du? Adibidez, Tuterako Udalean idazkari euskaldun bat egon behar dela? Itzultzaile zerbitzua ere bai?... Zer esan nahi dugu euskara ofiziala izango dela esatean? Horretan ados egon gaitezke, baina hartu beharreko neurriak aipatzen direnean, hor hasten dira diferentziak. Eta ez dugu ahaztu behar estatus ofiziala duten hizkuntza batzuk, gaelikoa Irlandan esaterako, kinka larrian daudela.

J. OLANO. Gauza bat da legezko babesa izatea eta beste bat zer epe, zer baliabide eta zein bide jarri behar diren... Izan daitezke iritzi desberdinak erritmoei buruz, baina lege aldetiko txapela izanda. Iruditzen zait bi urte barru txapel hori gabe segituko dugula eta, gainera, politikariei zaila izango zaizuela oposiziotik ofizialtasuna eskatzea, agintean zaudeten honetan euskara hizkuntza ofizial egiten ez baduzue.



Inma Errea
Iruñeko Udaleko euskara
zerbitzu burua.

Diskurtso handirik gabeko diskurtsoak

Zer da diskurtso bat? Diskurtso bat eduki behar dugu, beti? Zergatik egiten ditugu diskurtsoak, zertarako? Garai batean, diskurtso bat norbaitek jendaurrean jaurtitzen zuen hitz-parrastada bat zen, traketsago edo dotoreago osatua, oratoria eta erretorika lagun.

Orain bestelako diskurtsoak ere hedatu dira: gai jakin baten inguruko iritzi antolatu samarrak, komeni denean aldarrikatzeak. Euskarari buruz, kasu.

Diskurtsoa behar omen dugu euskararen inguruko iritziak eta jarrerak erakusteko, eta, batez ere, euskararen aldeko estrategiak hezurmamitzeko.

Hiztunok diskurtsoak eratzen ditugu geure –eta besteen– hizkuntzei buruz, gurea beste hizkuntza batzuen ispiluan alderatuta. Neke da irudikatzea besterik: balizko egoera bat non hiztunak beren hizkuntzari buruz gogoetarik egin gabe bizi baitira, beste ezein hizkuntzaren berririk ere ez dutelarik.

Bestalde, agerian da nork duen, non eta noiz, bere hizkuntzaren aldeko diskurtso baten edo gehiagoren behar larriagoa: zenbat eta seguruago hiztunak beraien hizkuntzarekin –zenbat eta ziu-rago izan zernahitarako erabili ahal dutela–, orduan eta txikiago diskurtsoen beharra.

Euskaldunok diskurtsoak makulu hartuta ibiltzen gara gehienetan, inguruko hizkuntza bote-retsuen haizea kontra dugularik ia beti, hiztun gisa arrastaka daramagun ahulezia gorria agerian.

Diskurtsoek, maiz, gure ahuleziak islatzen baitutuzte, salatu. Adibidez, gazteei euskaraz mintzatzeko esaten diegunean, euskara ez galtzeko, bestela euskara galduko delakoan: esan gabe ari gara esaten euskarak euskaldunon beharra daukala, eta ez guk euskararena. Errealitate alderantzizkatua: hiztunak hizkuntzaren alde, non eta naturalena baita hiztunek beraien aldeko tresna huts gisara erabiltzea hizkuntza.

Horregatik kezkatzen naute hizkuntza defendatzeko diskurtsoek: beharrezkoak izaki, diskurtso-egileok nahi dugunaren aurka egin dezakete oharkabean.

Horregatik nahiago ditut hiztunen nahia aldarrikatzen duten diskurtsoak –“euskaraz bizi nahi dut”–, euskara pertsonifikatzen dutenak baino –euskara sutsu maite duten askok gehiegizkoak jotzen dituzte gero euskararen erabilpen zehatzak–. Nahiago egoera baten aurrean sortutako aldarriak, aldarrikapen abstraktuak baino.

Nahiago askotariko diskurtso txiki malguak, egoerari aurre egiteko unean uneko eta tokian tokiko baldintzei atxikiak, diskurtso bakar erraldoi eta zurrun bat baino.

Eta nahiago errealitatea eraldatzeko diskurtso handirik gabeko ekimen xume eraginkorrek, hizkuntzaren erabilera justifikatu. gabe hizkuntza dantzan paratzen dutenak, behar den tokian. Gure ahoan.

DANI BLANCO



Ainhoa Azn arez

**Nafarroako Legebiltzarreko
lehendakaria**

Rafael Yuste neurobiologo espainiar ospetsuari orain dela gutxi egindako elkarrizketa batean aditu nion esaten euskara ikasteko interesa piztu zitzaiola nahiz eta bera madrildarra izan eta Estatu Batuen eta Espainiaren artean bizi. Hona bere hitzak: “Zoragarria iruditzen zait, eta Espainiako nahiz Europako ikastetxe guztietan irakatsi beharko lukete”.

Gure hizkuntzaren –euskararen– garrantzi kulturala aski izan beharko litzateke zaindua, partekatua eta miretsia izan dadin. Halere, aldiro ikusten dugu euskararen erabilera lege bidez arautzen dela. Jada 1986an, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean jasota ageri zen hizkuntzek berebiziko garrantzia daukatela bizikidetzari eta elkar ulertzeari begira, eta berezko bi hizkuntza dauzkagula kontuan hartuz, herritar guztien hizkuntz eskubideekiko errespetua funtsezko osagai bihurtzen da pertsonen arteko kohesio soziala lortzeko.

Gizartearen gehiengoa aspaldi jabetu zen euskara Nafarroako berezko hizkuntza bat dela, bai eta hizkuntza minorizatu bat ere, historian zehar neurri hertsatzaileak pairatu dituena zenbait alditan, halako moduan non murriztu egin baita bere erabilera; hori dela-eta, babestu eta sustatu egin behar da, nafar guztion ondarea den aldetik. Hala ageri da jasota arestian aipatutako foru legean, eta baita Erregio edo Gutxiengoen Hiz-

Gizarte kohesioa eta kultur aberastasuna

kuntzen Europako Kartan ere, zeina Espainiak 1992an sinatu eta 2001ean berretsi baitzuen.

Nafar emakume eta gizon guzti-guztion hizkuntz eskubideak bermatzeaz ari gara. Hartara, Nafarroako Parlamentuak Euskarari buruzko Foru Legea aldatzea onetsi du aurten. Asmoa da, azken finean, legea garatzen jarraitzea; euskararen erabilera normal eta ofiziala arautzen jarraitzea gizarte-bizikidetzaren arloetan eta irakaskuntzan; herritarrek euskaraz jakiteko eta euskara erabiltzeko duten eskubidea babestea eta eskubide hori gauzatzeko tresnak definitzea; euskararen biziberritzea eta garapena babestea, erabilera sustatzeko neurriak hartuz; euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzea borondatezkotasun, mailakatze eta begirune irizpideei jarraikiz eta Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera.

Nekez egingo dugu aurrera euskararen normalizazioan ez baditugu Parlamentuan onetsitako legeak garatzen eta betetzen eta sinatutako akordioak eta itunak behin eta berriro urratzen baditugu. Orain falta zaiguna da hartutako konpromisoak betetzea eta bide-orri bat jarraitzea lehengo gobernuekin gertatu den bazterkeria eta murrizketa egoera amaiazteko balioko duten ekintzak taxutzeko. Jar dezagun behar adina baliabide eta joka dezagun ikuskera zabalez, gure kultur balio ederrenetariko bat liskar-iturri izatea ekiditeko, eguneroko bizitzan komunikatzeko erabiltzen ditugun hizkuntzak –batzuen kasuan, errealitatea elebiduna da, eta beste batzuenan, berriz, eleaniztuna– gizarte kohesioaren oinarri eta kultur aberastasun bai baitira: nik ere euskaraz bizi nahi dut.



BERRIA

Garbiñe Pretiati Ijrra
Hizkuntz Eskubideen Beha-
tokiko zuzendaria.

Demokrazia, giza eskubideak eta hizkuntza

Giza eskubideen aitortza eta bermea dira sistema politiko demokratiko bat ondoen ezaugarritzen duen elementurik adierazkorrena. Eta giza eskubideen bi funtsezko balioak dira berezko duintasunaren errespetua eta pertsonon berdintasuna.

Hala jasotzen da Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean: "... ez da inor diskriminatuko arraza, larru kolorea, hizkuntza, erlijioa, iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomia maila, jaiotza edo beste inolako gorabeherengatik...". Hori horrela, lurraldekoa/norberaren hizkuntza erabili nahi eta ahal izatea giza eskubideen parametrotan kokatu behar dugu. Esan dezakegu giza eskubideen dimentsio linguistikoa direla oinarriko hizkuntza eskubideak. Norbere hizkuntzaz baliatu, hura erabili eta garatzeko eskubidea. Gai-nontzeko eskubideen bermea bezain funtsezkoa pertsonen ongizatea eta duintasuna bermatzeko.

Gutxieste historia luzea pairatu dute hizkuntza-eskubideek Nafarroan. Eta hizkuntzarenegatik egun bereizkeria sortzen jarraitzen duen funtsezko elementua da 1986ko Euskararen Foru Legea. Legean jasotzen diren hizkuntzaren inguruko irizpideak pertsonen arteko sailkapen bat egiten dute. Herritarren arteko bereizkeria eta bazterte soziala sortzen du.

Praktikan, batzuei eskubidea aitortzea eta beste batzuei ukatzea pertsona batzuk beste

batzuen gainetik jartzea da. Hizkuntza hautua dela eta egiten den diskriminazioan pertsona bera dago bereiztua bere mintzatzeko maneragatik.

Botere politikoek bere administratuei eskubide berberak aitortzen ez dizkien bitartean, hizkuntza hautua egiteko eskubidea bermatzen ez dien bitartean, praktikan giza eskubideak urratzen dira. Nafar oro berdina da betekizun fiskaletan, administratiboetan... ez, ordea, hizkuntza eskubideei dagokienean.

Euskaraz bizi nahi duten herritarrek sentitu nahi dute euskara baliodun hizkuntza bat dela, egokia eta baliozkoa. Eta giza eskubideek euskal hiztunok pairatzen duguna azaltzeko eta interpretatzeko marko bat eskaintzen digute.

Desabantailan bizi den jendea edota komunitateak existitzen diren bitartean defizit egoera bat izango du demokraziak. Lurralde bateko afera linguistikoak ere agerian jartzen du zein garapen maila eta zein osasun duen demokrazia batek. Herritar guztiei eskubide berberak aitortzen ez bazaizkie eta aukera berberak ez badituzte edota, hizkuntza arrazoiengatik bazterkeria sufritzen duten herritarrak baldin badaude, demokrazia (linguistikoan) sakontzeko ahalegina eta indarra egin behar da.

Has gaitezen hizkuntza eskubideen eta giza eskubideen arteko harremanaren ulerkuntzan eta ikuspegi sakontzen. Ezinbestekoa da. Hitz eta kontzeptu horiez jabetzeak ondorio positiboa baino ez du. Guztiok kabitzen garen etorkizuna irudikatu behar dugu.



Maria Solana
Nafarroako Hezkuntza
kontseilari eta gobernu
bozeramailea

Irmo normalizazioaren bidean

Gauza jakina da, Nafarroako Euskararen Legeak hiru zatitan banatu zuen herrialdea, euskararen ofizialtasunari zegokionez: eremu elebiduna, eremu mistoa eta eremu erdalduna. 1986a zen.

Harrezkero, hurrengo hiru hamarkadetan, euskararen egoerak okerrera egin zuen Nafarroan Foru Administrazioari dagokionez: helduen eskalduntzea ekonomikoki itozteko ahalegina, Euskalerrria Irratia eta euskal hedabideen kontrako jokabidea, hezkuntzan euskaraz ikasteko Administrazioetik behin eta berriz jarraitako oztopoak. Egoera hainbeste gaiztotu zen, ezen 1998an Euskaltzaindiko presidente Haritschelharrek hizkuntza politika eztabaidatzeko bilera eskatu zion Miguel Sanzi. Alferrrik: UPNren gobernuek, dekretuz dekretu euskararen kontrako neurriak hartzen jarraitu zuten (372/2000k euskararen ezagutza atzerriko hizkuntzaren pareko bihurtzen zuen eremu mistoko administrazioan; 29/2003 dekretua, Hezkuntzako 2016ko oposizioetan euskarazko lanpostuen kontra egiteko; azken hau Administrazioan euskararen erabilera arautuko duen dekretu berriak indargabetuko du laster).

Euskararen normalizazioa kosta ahala kosta eragotzi nahi zen. Erraz uler daiteke, beraz, mobilizazio sozialak bere jomugan izan izana Euskararen Legea.

Hiru hamarkadatan lege-hobekuntza gutxi izan ditu euskarak Nafarroan: 2010ean hiru udalerrri igaro ziren eremu erdaldunetik mistora, baina benetako aldaketak geroago etorri dira. 2015ean aldaketa kualitatibo handia gertatu zen, euskaraz ikasteko eskubidea herrialde osoko hezkuntza publikora hedatuta; aldaketa kuantitatibo handiena 2017an gauzatu da: 44 udalerrrik lortu dute eremu erdaldunetik mistora igarotzea. Bibiak eskutik doaz, gaur egungo egoera sozialean ezinbestekoa baita euskararako eskubidea legeetan txertatzea, eguneroko praktikak jendartean normaltasunez finka dezan gero. Horretarako oinarritzakoa da Gobernua sustatzailea izatea, ez oztopo-jartzailea, baita guztiok jakitea ibilbidea eskubideen defentsan oinarriturik egingo dugula, horrek ematen baitigu nafar gizartearen babesak.

Lehentasunez aldatu beharrekoak gizartearen harrera eta jarrera dira. Nafar hizkuntza gatazka politikotik atera beharra dago, eta hori lortzea guztion erantzukizuna da. Indarrean dagoen lege markoak euskararen sustapenerako lan-esparru zabala eskaintzen digunez, langintza hori ahalik eta atarramenturik handienarekin egiten ahaleginduko da Gobernua, parlamentuan Foru Lege berri bat onartu bitartean.

Finean bilatu beharko dugu nafar guztiek, ideologia zein duten ere, normalizat hartzea euskara eta haren sustapena. Hizkuntzarekiko kontraktasuna indargabetzea dugu eginkizun garrantzitsuenetako bat; euskararen normalizazioaren aldeko jarrera gizartearen sektore ideologiko guztietara hedatu beharko dugu, defendatzen duten planteamendu nazionaletik harago.



Oskar Zapata Solano
Euskaltzaleen Topagunea

2015ean gobernu aldaketa ekarri zuten alderdiek ez dute adostasunik lortzen legea aldatzeko. Ondorioz, Nafarroan euskarak estatus juridiko egokirik gabe segitzen du. Baliabideei dagokionez, urratsak ematen ari diren arren, urrun gaude beharretatik. Zentzu horretan, gaurkotasun osoa izaten segitzen du eskubideen aldarrikapenean oinarritutako diskurtsoak.

Topagunetik, zubiak eraikitzen lagundu dazaketen ildo berrien beharra ikusten dugu. Hausnarketaren abiapuntuak ondokoak dira: Nafarroan euskaltzaleak eta ez euskaltzaleak biziko gara, bi hiztun komunitateak existituko gara ahulago edo indartsuago; egun gehien zabaltzen diren diskurtsoak aldeko zein kontrako poloetara heltzen dira errazki, ez horrenbeste besteengana.

Aurrera egiteko, gehiengoak ematen duen boterea eta babesak eskuratu behar da. Nafarroan gaur ez dago gehiengo hori euskararen alde. Zenbaki txikiak jaitsi gabe, heren bat alde dago, heren bat kontra eta azken heren bat zalantzan. Azken multzo honetan erdia euskaltzaleetatik hurbilago, beste erdia urrunago delarik. Ez dirudi hurrengo urteotan egoera asko aldatuko denik. Beraz, gehiengo soziala eta politikoa egonkortzeko, zalantzan dagoen herena irabazteko dugu euskaltzaleok.

Hau esanda, zalantzan dauden heren horri zuzenduriko diskurtsoak elikatzeko proposamen batzuk egiteko ausartuko gara, bi premisa hauek

... eta hauek ere bai

beti buruan: gatazka egon badago eta inozokerian ezin gara erori.

Hasteko, ausart eta fin ibiltzea komeni zaigu; izan ere, badira bi gai bereziki gatazkatsuak diskurtso zein erabakiak gizarteratzerakoan: lanpostuak administrazioan (herritarren eskubideak lehenesteko beharra izan daiteke ildo egokia) eta hegoalderanzko hedapen geografikoa (udalen mugimendu demokratiko erradikala eredugarri). Edozein gai dela ere, horra hor ideia batzuk:

- Berdintasuna, errespetua, aitortza, bizikidetzaren pertsona eta hizkuntzen artean: Sentimenduaz ari gara, eskubideak zuek eta guk ditugu. Elkarrekin biziko gara. Elkarren onarpena behar dugu.
- Demokrazia, jakintza: Gehiengoaren babesak nahi dugu, gutxiengoaren eskubideak errespetatuta. Hizkuntza politika sendatzaile, garatzaile eta progresiboa nahi dugu. Jakintza metatua dugu.
- Aberastasuna: euskara bizirik dela pertsona eta komunitate gisa anitzagoak, aberatsagoak, exotikoagoak, erakargarriagoak gara. Merkatu aukera gehiago ditugu, etxe ondoan ere.
- Ekologia, modernitatea: Apustu ekologikoa da euskararena. Euskaldunok munduarekin konektatuta gaude erabat, euskal kultura gaurkoa da. Ideologia, pertsona, hizkuntza aniztasuna gizarte heldu moderno demokratiko eta osasuntsu baten erakuslea da.

Kontzeptu bakoitzak bere garapena eta zuzentzen den xede taldearekiko egokitzapena behar ditu, belarriak goxatu eta euskaltzaleen helburuaren alde gero eta nafartar gehiago jarriko baditugu.



Hedoi Etxarte
Katakarak-eko langilea.

Esloganak ala politika

2001eko irailak hamaikako atentatuen ostean. Urgentziaz. Susan Buck-Morss-ek *Thinking Past Terror* idatzi zuen. Liburu hark ez zuen hizkuntza eskubideez jarduten. Mendebaldeko ezkerri kritika egiten zion. Ez zituelako etxerako lanak eginak islamaren inguruan. Bere burua munduaren zentrotzat zeukalako. Zeren “hegemonia hesituta dagoenean, paisaia politikoa erasotzen denean, esanahien konplexutasunerako tolerantzia txikia dago”. Eta konplexutasun zehatz hori gabe. Irakurketa kokaturik gabe. Ez dago estrategia posiblerik.

Demografia eta hizkuntz eskubideak. Edozein politika publiko eztabaidatzen hasi aurretik begiratu beharko genioke demografiari. Nafarroako populazioa nabarmen zahartzen ari da duela 35 urtetik. Alegia, helduen kopurua gero eta handiagoa da, haurrena txikiagoa –familien %26ak soilik dauzka haurrak–. Emakume bakoitzeko haur tasa 1,46koa da –hazkunde nulua izateko 2,1ekoa beharko luke–. Etorkinik gabe Nafarroaren populazioak behera egingo zuen duela urte batzuetatik. Eta afera da etorkin gero eta gutxiago jasotzen ari dela herrialdea.

Lurraldean aplikatuta, Iruñerria populazioa irabazten ari da. Iruñerria zabaletik kanpoko lurraldeak populazioa galtzen ari dira. Datuok Nafarroak dauzkan hiru erregimen linguistikoetan aplikatuta hauek dira emaitzak: 1991n Eremu euskaldunean populazioaren %10,91 bizi bazen,

2011n %9,25 bizi zen; mistoan %52,28tik %56,39ra igo da; ez euskaldunean %36,81etik %34,37ra jeitsi. Datu hauek ez dute kontuan hartzen 2017ko ekainean 44 udalerrri eremu ez euskaldunetik mistora pasa zirela. 40.000 biztanle gehiagorekin 400.000 biztanle dauzka eremu mistoak (Nafarroak, denera 644.000).

Euskararen *fightak* Iruñerrian gertatzen dira, demografikoki, ekonomikoki eta sozialki dinamikoena den eremuan: han dauzka euskarak hiztun gehien, han daude sortzen diren hizkuntz politikako kalapitak (Iruñeko haur-eskolak, Zizur Txikia, zentroak ereduaren arabera bereiztea).

Adinari begira (IS: 2011), Nafarroako 5-14 tarteko %30 dira elebidunak, 65 urtetik gorako %7,91 diren bitartean. Eta elebidun hartzaileak %16,46 dira 5-14 tartean eta %6 65 urtetik gorako artean. Erdaldunen datua plastikoagoa da: 5-14 tartean %51 da elebakarra, 65etik gorako artean %84 den bitartean. Euskara gazteen hizkuntza bat da, haurrena.

Ondorioa: azterketa gehiago. Demografia bezala, xehetasunez aztertu beharko genituzke hizkuntzaren orainarekin zerikusia duten ardatz guztiak –erakunde publikoen balibideak, NUP, Lanbide Heziketa, merkataritza, transmisioa, hirigintza–. Horien guztien eboluzioak ikusi ostean, geurearekin antza izan dezaketen gizarte elebidunak begiratu beharko genituzke (Valentzia, Balear uharteak, Katalunia). Hango azierioak gurean nola lan ditzakegun pentsatu.

Ondoren soilik jorratu beharko genuke etorkizunean nahi duguna: ze diskurtso eta estrategia nahi ditugun nora iristeko.

Euskararen I. Plan Estrategikoa



16-19.EUS

denon
arte
aurrera!

gurea, denona

euskara

de todos y todas

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra


euskarabidea